


BALIO PROPOSAMENA

Hainbat eskolaz kanpoko jarduerak egiteko (Marrazketa, Dantza, Robotika) eta hainbat aktibitate libre (urtebetetzeak egin, lagunekin alokatu...) egiteko espazio bat, adin guztientzako zuzendutakoa eta prezio oso lehiakorrek eskaintzen dugu proiektu honen bitartez.

Gure berezitasuna prezio ekonomikoak eta eskuragarri dauden aukerak izango dira. Klaseak bai euskeraz bai gaztelaniaz izango dira eta irakasleak adituak dira beren gaietan eta edozein urteko pertsoneri irakasteko prest daude.



Ordutegiari dagokionez, edonoren ordutegira moldatu ahal gara, goiz eta arratsalde osoan irekita izango ditugu gure ateak, goizeko 8.00etatik gaueko 22.00etara. Astelehenetik ostiraletara, larunbat eta igandean alokatzeko prest egongo da ordutegi berberan, baita urtebetetzeak ospatzeko ere. Gure gelen bat alokatzeko edo urtebetetzeak ospatzeko, astebeteko aurrerapenarekin erreserbatu beharko da. Egun bateko klasera ezin norbait ezin badu etorri, gure web orrian egun guztietako bideo-klaseen laburpenak igotzen ditugu, dena eguneratuta egon dadin.

Gazteek egoteko espazio komunak merke egongo dira, urtebetetzeetarako lokala alokatzeko ahalmena izango dute gurasoek. Pakete desberdinak egongo dira hainbat aktibitate eskaintzen, hala nola; marrazketa klase bat izan, dantza estudioa erabiltzeko aukera izan... Eta urtebetetze guztiek tarta bat izango dute opari.




Jarduera bakoitzak bere berezitasunak dituenez, funtzionamendu arauak desberdinak izango dira kasu bakoitzean baina orokorrean gure berezoei eskainiko dizkigun balio batzuetan oinarrituko gara: prezio lehiakorrak, **pertsonalizazioa, egokitasuna eta erosotasuna eta aukera aniztasuna.**



Marrazketa klaserako materialak lokalean egongo dira, orduan bezeroek ez dute materiala erosi behar eta hori gure bereizgarritasun garrantzitsu bat da beste akademia batzuekin alderatuz. Materiala ere erosteko aukera izango dute nahi izanez gero, baina bere material propioa ekarri ahal dute klasera beraien materiala gehiago gustatzen bazaie edo hobeto funtzionatzen duela uste badute. Lokaleko materiala egunero garbituko eta desinfektatuko da hurrengo egunerako garbi eta prest egotek

Dantza klaseetarako aldiz bakoitzak bere materiala ekarri beharko du, hala nola, arropa propioa dantza egiteko eta ballet egiten baduzu balleteko puntak ikasleak erosi beharko ditu, bere material pertsonala delako eta oinetan eraman beharko duelako, horrez gain pertsona guztiak ez dute oin neurri berdina eta puntak apurtzen direnean aldatu behar direlako. Ballet ez baduzu egiten ez duzu beste materialik beharko arropa izan ezik. Dantza estudioak egunero garbituko dira hurrengo egunerako prest egoteko, eta arropaz aldatzeko aldalekuak egongo dira non lehiatilak egongo dira eta bakoitzak bere material pertsonala utzi ahalko du.



Robotikan klaseko materiala bertan emango zaie ikasleei, eta ikastaroan bai banakoak zein taldekakoak eskainiko dira. Talde bakoitzak bere materiala izango du, bai mindstormen bai arduinon, baina lehiaketako ikastarokoek bere material propioa ekarriko dute.